Kultura, kirol eta laguntza jardueretarako diru-laguntzak emateko Udal Ordenantza onartzeko akordioan ahalmena ematen zitzaion alkate jaunari ordenantza garatzeko; eta alkateak, berriz, 2015eko uztailaren 15eko 97/2015 Dekretuaren bidez, Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetu zion ahalmen hori. Horiek horrela, Udal Ordenantzaren xedatutakoa betetzeko, eta Informazio Batzordeak 2016eko azaroaren 08an emandako irizpenarekin bat, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2016eko azaroaren 30ko bilkuran, ondoko akordio hau hartu du:

A. KIROL EDO KULTUR JARDUERAK SUSTATZEN DITUZTEN ENTITATE ETA ELKARTEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK

Kultura, kirol eta laguntza jardueretarako diru-laguntzak emateko Udal Ordenantza Udalbatzak onartzeko akordioan ahalmena ematen zitzaion alkate jaunari ordenantza garatzeko; eta alkateak, berriz, 2015eko uztailaren 15eko 97/2015 Dekretuaren bidez, Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetu zion ahalmen hori. Horiek horrela, Udal Ordenantzaren xedatutakoa betetzeko, eta Informazio Batzordeak 2016ko urriaren 18an eta azaroaren 10ean emandako irizpenekin bat, Tokiko Gobernu Batzarrak ondoko akordio hau hartu du:

LEHENENGOA.-

Onartzen da kirol edo kultur jarduerak sustatzen dituzten entitate eta elkarteentzako diru-laguntzak emateko 2016ko deialdi publikoa. Kultura, kirol eta laguntza jardueretarako diru-laguntzak emateko oinarri arautzaile espezifikoetan zehazten da deialdi horren araubidea —hain zuzen ere, 2010eko abenduaren 20ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuta, 242 zenbakian—.

BIGARRENA.-

Deialdiaren aurrekontu-muga HAMAHIRU MILA EUROkoa da (13.000,00), eta Udal Aurrekontuko 3300 48001 kontu-sailaren kontra joango da.

HIRUGARRENA.-

1. Diru-laguntzaren gai izango da laugarren atalaren arabera onuradunak diren entitateek 2016an, kultur eta kirol-jarduerak egin eta garatzea udalerrian.

Ondorio horietarako, kultur edo kirol-intereseko proiektutzat joko dira udal-eskaintzari ekarpen garrantzitsua egiten dioten kultur edo kirol-jarduerak, betiere artearen, sormenaren edo sustapenaren aldetik balioa badute.

2.- Entitate edo elkarte bakoitzak, gehienez ere, 3 proiektu aurkeztu ahal izango ditu, hainbat jarduerarekin hornituta; eta proiektuok zein bere aldetik kalifikatuko dira. Diru-laguntza jaso ahal izateko, jarduerak ondoko arloren bat bildu beharko dute:

- Arte eszenikoen agerpideak (hau da, ikuskizunak erakutsi edo eszenan jartzea), betiere amateurrak (ez-profesionalak) badira.
- Euskara sustatzeko programak.
- Musika
- Folklorea.
- Helduen zein adin txikikoen astia eta aisialdia gaitzat dituzten proiektuak.
- Udalerriko elkartearen arteko lankidetzak gaitzat duten proiektuak, betiere ezarritako arloetan.

- Aukera-berdintasunaren sustapena eta genero-indarkeriaren aurkako borroka (azaroaren 25a/ martxoaren 8a) xedetzat dituzten proiektuak.
 - Bidaiak eta txangoak.
 - Adin nagusikoak sustatzeko jarduerak (adin nagusikoen eguna).
 - Adin txikikoentzako kirol-ekitaldiak antolatzea.
- 3.- Diru-laguntza eskatzeko aurkezten diren proiektuak 2016an egin beharko dira.
- 4.- Aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira:
- 6 pertsona baino gutxiagorentzat direnak.
 - Jai-egitarauak.
 - 300€tik beherako aurrekontua duten jarduerak.
 - Udalerritik kanpo egiten diren jarduerak eta ekitaldiak (txangoak izan ezik).
- 5.- Diruz lagun daitezkeen gastuak izateko, zuzen justifikatuta egoteaz gain, diruz lagundutako jarduerari inolako dudarik gabe egokitzen zaizkion gastuak behar dituzte izan. Era berean, inola ere ez dira onartuko, diruz lagun daitezkeen gastu gisa, entitate eskatzailearen egitura kudeatzeko gastuak (langileria-gastuak, komunikazioak eta abar).
- 6.- Deialdi honen helburua izango da entitate eskatzaileen ekintza babestu eta osatzea, baina inola ere ez jarduera egitetik datozen gastu guztiak finantzatzea.

LAUGARRENA.- Onuradunak.

- 1.- Hona hemen ordenantza honek arautzen dituen diru-laguntzen onuradunak:
- Jubilatuen elkarteak.
 - Emakumeen elkarteak.
 - Kultur elkarteak.
 - Kirol-elkarteak edo klubak.
 - Auzokoen elkarteak.

Betiere elkarteok edo klubok irabazi-asmorik ez badaukate.

2. Ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte:
- Barrikan edukitzea helbide soziala.
 - Dagokion erregistroan eta Barriako Elkarteen Udal Erroldan inskribatuta egotea, informazio eguneratua izanda.
 - Irabazi-asmorik gabeko gisa eratuta izatea.

Kirol-klub edo entitateentzat, gainera:

- Kasuan kasuko jarduera sustatzen duen Bizkaiko kirol-federazioari edo arloko euskal federazioari atxikita izatea.

BOSGARRENA.- Diru-laguntzak emateko modua.

Diru-laguntzak emateko modua lehiaketa bidezkoa izango da, hainbanaketa-sistema hain zuzen ere, hau da, eratuko den epaimahaiak aurkezten diren eskabideak erkatuko ditu, eta horien hurrenkera ezarriko du 7. artikuluan finkatutako balorazio-irizpideen arabera. Epaimahaiak puntu gehien atera dituztenei esleituko dizkie diru-laguntzak, eta horien guztizko zenbatekoa, gehienez, aurrekontu-partidan jasotako kopurua izango da, Ordenantza honen bigarren artikuluan zehaztu dena.

SEIGARRENA.- Eskabideak eta epeak

- 1.- Diru-laguntzen eskabideak Udaletxean aurkeztu beharko dira, eta horiekin batera, ondorengo ataletan eskatutako dokumentazioa ere ekarri beharko da, horiek guztiak entitate edo elkarteko buruak edo idazkariak izenpetuta.

2.- Eskabideak aurkezteko epea egutegiko 20 egunekoa da, dagokion iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta.

3.- Eskabidearekin batera, ondoko dokumentazio orokor hau aurkeztu beharko da:

- Eskabidea sinatzen duenaren NANaren fotokopia.
- Jarduteko ahalordea edo ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Entitatearen IFKen fotokopia.
- Dagokion erregistroan inskribatuta dagoela frogatzen duen egiaztagiria.
- Dagokion federazioan atxikita dagoela frogatzen duen egiaztagiria (kirol-entitateentzat).
- Entitatearen estatutuen kopia (udal-artxiboetan ez badaude edo aldatu badira).
- Ogasunean eta Gizarte Segurantzaren egunean dagoela frogatzen duen egiaztagiria.

Baldin eta zehaztutako dokumenturen bat Administrazioaren esku badago, diru-laguntza eskatzen duenak eskubidea izango du horiek ez aurkezteko, hala aurreikusten baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3) artikuluko bigarren paragrafoan. Horrelakoetan, interesatuek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, esanez ez direla aldatu dokumentazio hura eman zen uneko ingurumariak, eta berariaz zehaztu beharko dute zein dokumentu diren horiek, zein datatakoak diren eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren.

4.- Eskabidearekin batera, ondoko dokumentazio espezifiko hau aurkeztu beharko da:

- Proiektuaren deskribapena, proiektuaren azalpen-memoria izango duena. Bertan, proiektua osatzen duten jarduerak zehaztuko dira, eta ondoko hauek jasoko:

- Jardueraren beharra eta eragina.
- Jardueraren hartzaileak, eta horien adina, generoa, jatorria eta

jarduera egingo den lekua.

- Lortu nahi diren helburuak.
- Diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua.
- Jarduerak egiteko lekuak eta datak.
- Proiektuaren alderdi berritzaileei buruzko txostena.
- Euskarak proiektuan duen presentzia eta erabilerari buruzko txostena.

5.- Baldin eta eskabideak oso-osorik formalizatzen ez badira edo dokumenturen bat falta badute, interesatuei adieraziko zaie egutegiko 10 egun dutela hutsa zuzentzeko edo dokumentuak aurkezteko, eta, horrela egiten ez badute, eskarian atzera egin duela ulertuko dela.

ZAZPIGARRENA: Balorazioa

Aurkezten diren proiektu guztiak ondoren zehazten diren irizpideen arabera ebaluatuko dira, gehienezko 100 puntuen baitan:

| | Irizpidea | Puntuak Gehienez |
|---|--|---------------------|
| 1 | Berrikuntzaren, diziplinartekotasunaren edo lankidetzaren aldeko erronka duten kirol eta kultur proiektuak. | 10 |
| 2 | Jardueran eragiteko beharra, kontuan hartuta zein den proiektuaren kultur eta kirol-diziplina. Kasuan kasuko kultur edo kirol-modalitatearen arabera. | 10 |
| 3 | Proiektuak udalaren kultur eta kirol-eskaintzari egiten dion ekarpena. | 20 |

| | | |
|---|---|----|
| 4 | Kasuan kasuko eskaintzaren edo proiektuaren eremu pertsonala: Hartzaileak kontuan hartuz baloratuko da, 1etik 5era bitarteko puntuazioa emango zaie 16 urtetik beherakoentzat, 50 urtetik gorako andra-gizonentzat eta jubilatuentzat antolatzen diren jardueri | 5 |
| 5 | Proiektuaren finantzazio-maila: Ratio bat kalkulatu da (proiektuaren diru-sarrera guztiak —bai bazkideen bidez lortzen direnak, bai babesleen bidez lortzen direnak, bai jarduerak berak sortzen dituenak— zati proiektuak sortzen dituen gastuak. Zenbat eta ratio handiagoa, hainbat eta puntuazio handiagoa. | 10 |
| 6 | Entitatearen ibilbidea. Irizpideak: - Deialdiaren aurreko urtean gutxienez jarduera bat egin izana (5 puntu) - Gutxienez 20 bazkide izatea (5 puntu) | 10 |
| 7 | EUSKARAREN erabilera. Euskararen erabilerak nabarmena izan beharko du. Bestela, ez da puntu bat ere emango. | 15 |
| 8 | Berdintasunerako jarduerak sustatzea | 10 |
| 9 | Beste udal-elkartekin batera lankidetzaproiektuak | 10 |

Gutxienez 50 puntu lortzen ez duten proiektuak ez dira diruz lagunduko.

Diru-laguntzaren gehienezko zenbatekoa aurrekontuaren %80 izango da, eta inola ere ez da 1.700€koa edo handiagoa izango. Puntu gehien eskuratzen duen proiektuak lortuko du finkatutako zenbatekoa, eta gainerakoek gehienezko puntuazioarekiko proportzioan jasoko dute.

Proiektu guztiek kostuaren zenbateko osoaren gutxienez %20ko finantzazio propioa eduki beharko dute

ZORTZIGARRENA.- Aholkularitza

Udalaren Informazio Batzordeak behar den aholkularitza eskainiko du, ordenantza honetan litekeen edozein zalantza argitzeko.

BEDERATZIGARRENA.- Epaimahaia

Udalaren Informazio Batzordeak aztertu eta ebaluatuko ditu eskabideak.

HAMARGARRENA.- Ebatzi eta jakinarazteko epea

Diru-laguntzak emateko prozedura ebatzi eta jakinarazteko gehienezko epea hiru hilekoa izango da eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik. Emandako eta ukatutako diru-laguntzak jakinaraziko dira, bai eta eman ez direnak ere, azken horiek arrazoi hauek direla-eta eman gabe geratu badira: eskarian atzera egitea, eskubideari uko egitea edo gerora sortutako ezintasun materiala.

HAMAİKAGARRENA.- Jakinarazteko bideak.

Ebazpenaren berri emango zaie interesatuei, hala aurreikusten baita Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. Artikuluan.

HAMABIGARRENA.- Errekurtso-bideak.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta haren aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal da, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabeteko epearen barruan. Nahi izanez gero, zuzen-zuzenean,

administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, betiere Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legeak 8. eta 10. artikuluetan aurreikusitako eskumenen banaketaren arabera; errekurtso hori jartzeko epea 2 hilekoa da jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

HAMAHIRUGARRENA.- Ordainketa

Ebazpenaren jakinarazpena jasotzen denetik egutegiko ondorengo 10 egunetan berariaz uko egiten ez bazaio diru-laguntzari, ordaindu egingo da.

HAMALAU GARRENA.- Entitate onuradunak bere ekimenez diru-laguntza itzultzea.

Onuradunak Udalaren errekerimendurik gabe egiten duen itzulketa da. Ordainketa-gutunaren bidez egin beharko da.

HAMABOS GARRENA.- Onuradunen betebeharrak

Ordenantza honetan araututako diru-laguntzen onuradunek ondoko betebeharrak hauek dituzte:

- Jarduera egitea.
- Diru-laguntza emateko baldintzak bete direla justifikatzea, Udaletxean ondoko dokumentazio hau aurkeztuz:
 - e) Jardueraren azalpen-memoria: betetze-maila, etorritakoen kopuruak, giza baliabideak, erabilitako materialak, hartzaileak.
 - f) Gastuen eta diru-sarreraren behin betiko zerrenda eta gastuen fakturak.
 - g) Udalari jakinaraztea ea jarduera berbererako beste diru-laguntzarik eman ote zaion.
 - h) Argitalpen, publizitate edo komunikazio orok gutxienez euskaraz egon beharko du, bai eta Udalaren logoa eraman ere.

HAMASEI GARRENA.- Diru-laguntza itzultzea.

Ondoko kasu hauetan, diru-laguntza itzuliko da eta, horrez gain, dagozkion berandutze-interesak ordaindu beharko dira. Hona hemen kasu horiek zein diren:

- Justifikatzeko beharkizuna ez betetzea.
- Diru-laguntza eman zenean onartutako helburua ez betetzea.
- Diru-laguntza ematea justifikatu zuten baldintzak ez betetzea.
- Ordenantzan aurreikusitako gainerako kasuak ez betetzea.
- Ezarritako kontrola gauzatzen ez uztea edo trabak jartzea.

HAMAZAZPI GARRENA.-

Argitara eman bedi deialdiaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, iragarki-oholean eta Udalaren web-orrian. Eta eman bekie horren berri Barrikako Elkarteen Udal Erregistroan izena emanda dauden elkarteei.

B. HAURTZAINDEGI-BEKAK

Kultura, kirol eta laguntza jardueretarako diru-laguntzak emateko Udal Ordenantza Udalbatzak onartzeko akordioan ahalmena ematen zitzaion alkate jaunari ordenantza garatzeko; eta alkateak, berriz, 2015eko uztailaren 15eko 97/2015 Dekretuaren bidez, Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetu zion ahalmen hori. Horiek horrela, Udal Ordenantzaren xedatutakoa betetzeko, eta Informazio Batzordeak 2016ko urriaren 18an eta azaroaren 10ean emandako irizpenekin bat, Tokiko Gobernu Batzarrak ondoko akordio hau hartu du:

LEHENENGOA.- Onartzen da haurtzaindegi-bekak emateko 2016ko deialdi publikoa. Kultura, kirol eta laguntza jardueretarako diru-laguntzak emateko oinarri arautzaile espezifikoetan zehazten da deialdi horren araubidea —hain zuzen ere, 2010eko abenduaren 20ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuta, 242 zenbakian—.

BIGARRENA.- Deialdiaren aurrekontu-muga HIRU MILA EUROkoa da (3.000,00), eta Udal Aurrekontuko 2310 48002 kontu-sailaren kontra joango da.

Diru-laguntza honetan, familia edo elkarbizitza-unitate bakoitzak, gehienez, ondoko zenbateko hau jaso ahal izango du:

- 1) Barrikako Udalean errolatuta egon eta Plentziako Haurreskolan bi urtekoen gelan 2015-2016 ikasturterako laguntzaile bat kontratatzeak kostuaren %60.
- 2) Laguntzaren eskatzaileari sortutako gastuen % 50 ordainduko du gehienez Udalak, bi urte baino gutxiagoko umeak dituzten familien kasuetan. Gehienez 900 euro lortu ahal izango dira. Familia-unitate horiei laguntzak eman ostean, halarik ere banatu gabeko kredituren bat geratzekotan, diru-laguntzak emango dira.
- 3) Familia-unitateei 2-3 urte bitarteko umeak direla-eta sortutako gastuen %50.
- Baldin eta aurrekontuko kontsignazioa nahikoa ez bada eskabide guztiei aurre egiteko, laguntzok hainbanatu egingo dira aurkeztutako eskabide-kopuruaren arabera. Lehenengo eta behin, 1) atalari begiratuko zaio, eta gero 2) eta 3) atalei, familia edo elkarbizitza-unitatearen errentarekin bat. Azkenean, talde bakoitzaren eskatzaileen artean zati berdinak eginez banatuko da.

HIRUGARRENA.- Xedea.

Udalak bekak emango dizkie Barrikako Udalean errolatuta egon eta 2015-2016 ikasturtean parte hartu duten umeen familiei:

- 4) Plentziako Haurreskolako bi urtekoen gelan 0-2 urtetan egon direnei
- 5) Haurtzaindegiren batean 0-2 urte eman dutenei.
- 6) Ikastetxe publiko edo itunpekoetan 2-3 urte eman dutenei.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak baimenduta egon beharko du haurtzaindegiak, bai eta jarduera hori egiteko beharrezko baldintza guztiak bete ere. Baimendutako ikastetxetzat joko dira Hezkuntza Sailaren 297/2002 eta 215/2004 Dekretuetan, Hezkuntza sailburuaren apirilaren 10eko Aginduan eta Hezkuntzako Kalitateari buruzko 10/2002 Lege Organikoan ezarritako araudiko betekizunak betetzen dituztenak, eta, beraz, abenduaren 17ko 215/2004 Dekretuko 3. artikuluan ezarritako nahitaezko baimena dutenak.

Horretarako, Eusko Jaurlaritzak egutegian ezartzen duen ikasturtea joko da eskola-ikasturtetzat. Hurrengo urteko irailetik ekainera bitartean izaten da hori, gutxi gorabehera, bi hileak barne.

Dagokion deialdiaren kargura, edozein ikastetxe publiko edo itunpekotako bi urtekoen gelak sortzen dituen gastuak ere ordainduko dira.

LAUGARRENA.- Onuradunak.

Diru-laguntza honen onuraduntzat hartuko da Barrikan bizi eta baldintza hauek betetzen dituen familia-unitate edo elkabizitza-unitate oro:

1. Familia eskatzailearen errentak, non eta ez diren deialdi honetako bigarren artikuluko 1) atalekoak, inola ere ezin izango du gainditu 30.000€ko muga.

2. Diru-laguntzaren sorburua den umea, 0-2 urtekoa bada, parte hartzea 2015/2016 ikasturtean Plentziako Haurreskolako bi urtekoen gelan edo haurtzaindegiren batean; edo 2-3 urte bitartekoa izanda, parte hartzea ikastetxe publiko edo itunpekoetan bi urtekoen gelan.

3. Plentziako Haurreskolara, haurtzaindegira edo bi urtekoen gelara doan umea eta familia-unitate osoa Barrika udalerrian errolatuta egotea, behintzat, laguntzaren helburu den ikastaroa hasi baino sei hilabete lehenago, eta ikastaroa amaitu arte bertan errolatuta egotea; hala ere, salbuespenezko kasuetan, egoera horiek informazio-batzorde eskudunak aztertu eta ebatziko ditu.

4. Familia-unitateak Barrikako Udalean ordaindu beharreko zerga, tasa eta prezio publiko guztiak ordainduta izatea.

Familia-unitatetzat joko da ezkondua dagoen edo izatezko bikotea dena, gai horri buruzko indarreko araudian ezarritakoaren arabera. Aurretik aipatutako betekizun guzti-guztiak egiaztatu beharko dira; horretarako, agiri egokiak aurkeztu beharko dira, hain zuzen ere deialdi honen zazpigarren artikuluan jasotakoak.

BOSGARRENA.- Baloratzeko irizpideak

Bigarren artikuluko 2) eta 3) ataletako eskabideak familia eskatzailearen errenta-mailaren arabera kalifikatuko dira, talde hauei jarraiki:

- A taldea. Familiaren errenta 10.000€koa edo txikiagoa
- B taldea. Familiaren errenta 10.000€tik gorakoa baina 20.000 €koa edo txikiagoa
- c taldea. Familiaren errenta 20.000€tik gorakoa baina 30.000 € baino txikiagoa

SEIGARRENA.- Diru-laguntzak emateko modua.

Diru-laguntzak emateko araubidea lehiaketa bidezkoa da, hainbanaketasistema hain zuzen ere

Lehenengo eta behin, onuradun bakoitzari egotziko zaio bere atalari eta taldeari dagokien bekaren gehieneko zenbatekoa, ondoren zehaztu bezala:

- 1) atala. Urteko zenbatekoa, gehienez 900€koa
- 2) atala
 - A taldea: Urteko zenbatekoa, gehienez 900€koa.
 - B taldea: Urteko zenbatekoa, gehienez 600€koa.
 - C taldea: Urteko zenbatekoa, gehienez 300€koa.
- 3) atala
 - A taldea: Urteko zenbatekoa, gehienez 900€koa.
 - B taldea: Urteko zenbatekoa, gehienez 600€koa.
 - C taldea: Urteko zenbatekoa, gehienez 300€koa.

Baldin eta eskabide-kopuruak ezarri den aurrekontu-muga agortzen badu, finkatu den hurrenkeraren arabera emango dira banatu beharreko laguntzak: lehenengo, 1) atala, gero 2) atala eta, azkenean, 3) atala; azken bi ataletako

bakoitzean, taldeen hurrenkerari jarraituko zaio, eta talde bakoitzaren barruan zati berdineko banaketa egingo da.

Baldin eta diru-laguntzak banatu ondoren aurrekontu-partidako zenbatekoren bat sobera badago, taldeka banatuko da, hainbanatuta, zati berdinetan, harik eta kreditu erabilgarria agortu arte.

Barrikako Udaleko Informazio Batzordeak aztertuko ditu diru-laguntzen eskariak.

ZAZPIGARRENA.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

C. Bigarren artikuluko 1) ataleko eskabideak:

IGeko buruaren idazkia, eta, horrekin batera, batetik, Haurreskolara joan diren umeen zerrenda, eta, bestetik, 2015-2016 ikasturterako laguntzailearen kontrataziotik dagokien kostuaren frogagiria.

D. Bigarren artikuluko 2) eta 3) ataletako eskabideak:

— Izenpetzailearen NANaren fotokopia.

— Matrikula edo, hala badagokio, dagozkion zatiak ordaindu izanaren frogagiria.

— Zentro ofizialaren agiria, zera egiaztatzen duena, alegia, Eusko Jaurlaritzaren baimena baduela haurtzaindegiko zerbitzuak emateko, 215/2004 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

— Elkarbizitza-unitatea osatzen duten kide guztien azken errenta-aitorpena, edo, hala badagokio, aitorpena egin behar ez dela ziurtatzen duen egiaztagiria, Foru Ogasunak emana.

Baldin eta zehaztutako dokumenturen bat Administrazioaren esku badago, diru-laguntza eskatzen duenak eskubidea izango du horiek ez aurkezteko, hala aurreikusten baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3) artikuluko bigarren paragrafoan. Horrelakoetan, interesatuek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, esanez ez direla aldatu dokumentazio hura eman zen uneko ingurumariak, eta berariaz zehaztu beharko dute zein dokumentu diren horiek, zein datatakoak diren eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren.

Aipatutako agiri eta datuez gain, Udalak, kasuaren arabera, eskatzaileari agiri osagarriak eskatu ahalko dizkio, aurkeztutako proiektua osorik baloratzeko egokitzat jotzen baditu.

ZORTZIGARRENA.- Aurkezteko lekua eta epea.

Eskariak aurkezteko epea egutegiko hogeitun egunekoak izango da, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta. Dena dela, urte osoan zehar eta epetik kanpo ere aurkeztu ahal izango da eskabidea baldin eta inguruabar hauek gertatzen badira:

a) Umeen arreta-falta larria edo gizarte-arriskua.

b) Deialdiaren epearen ondoren, ekonomikoki oso egoera ezegonkorrean egotea.

Entitateen eta, hala badagokio, pertsona interesatuen eskabideak Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira; edo, nahi izanez gero, urriaren 1eko 39/2015 Legeak —Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeak— 16.4 artikuluan aipatzen dituen lekuetako edozeinetan.

BEDERATZIGARRENA.- Ebatzi eta jakinarazteko epea.

Diru-laguntzak emateko prozedura ebatzi eta jakinarazteko gehienezko epea hiru hilekoa izango da eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik. Emandako eta ukatutako diru-laguntzak jakinaraziko dira, bai eta eman ez direnak ere, azken horiek arrazoi hauek direla-eta eman gabe geratu badira: eskarian atzera egitea, eskubideari uko egitea edo gerora sortutako ezintasun materiala.

HAMARGARRENA.- Jakinarazteko bideak.

Ebazpenaren berri emango zaie interesatuei, hala aurreikusten baita Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. Artikuluan.

HAMAIKAGARRENA.- Errekurtso-bideak.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta haren aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal da, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabeteko epearen barruan. Nahi izanez gero, zuzen-zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, betiere Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legeak 8. eta 10. artikuluetan aurreikusitako eskumenen banaketaren arabera; errekurtso hori jartzeko epea 2 hilekoa da jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

HAMABIGARRENA.- Argitara eman bedi deialdiaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, iragarki-oholean eta Udalaren web-orrian. Eta eman bekie horren berri bana-banan 2013, 2014, 2015 eta 2016an jaiotako umeak dituzten familiei eta elkarbizitza-unitateei.

C. EUSKARA ARLOKO LAGUNTZAK

Kultura, kirol eta laguntza jardueretarako diru-laguntzak emateko Udal Ordenantza Udalbatzak onartzeko akordioan ahalmena ematen zitzaion alkate jaunari ordenantza garatzeko; eta alkateak, berriz, 2015eko uztailaren 15eko 97/2015 Dekretuaren bidez, Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetu zion ahalmen hori. Horiek horrela, Udal Ordenantzaren xedatutakoa betetzeko, eta Informazio Batzordeak 2016ko urriaren 18an eta azaroaren 10ean emandako irizpenekin bat, Tokiko Gobernu Batzarrak ondoko akordio hau hartu du:

LEHENENGOA.- Onartzen da euskara arloko diru-laguntzak emateko 2016ko deialdi publikoa. Kultura, kirol eta laguntza jardueretarako diru-laguntzak emateko oinarri arautzaile espezifikoen zehazten da deialdi horren araubidea —hain zuzen ere, 2010eko abenduaren 20ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuta, 242 zenbakian—.

BIGARRENA.- Deialdiaren aurrekontu-muga BOST MILA EUROkoa da (5.000,00€), eta Udal Aurrekontuko 3350 48000 kontu-sailaren kontra joango da.

Diru-laguntza honetarako pertsona fisiko bakoitzeko diru-laguntzaren gehienezko zenbatekoa eskatzailearen gastuen %100 izango da, eta, gehienez, 600 euro.

HIRUGARRENA.- Xedea.

Barrikako Udalak diru-laguntzak emango dizkie Barrikan erroldatuta dauden eta euskara ikasten duten pertsona fisikoei, Udalaren asmoa baita euskara ikastea bultzatzeaz gain, udalerriko auzokoen arteko erabilera sustatzea.

Halaber, zentro ofizialetan edo Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Euskara Zerbitzuaren bidez ematen diren euskara-ikastaroak ere diruz lagundu ahalko dira. Ondorio hauetarako, zentro ofizialtzat hartuko dira euskara ikasteko eta irakasteko homologatuta daudenak.

LAUGARRENA.- Onuradunak.

Diru-laguntza honen onuraduntzat hartuko da Barrikan bizi eta zenbait baldintza betetzen dituen pertsona fisiko oro. Hona hemen baldintzok:

1. 2015-2016 ikasturtean euskara ikasteko ikastaroak egin izana.
2. Barrika udalerrian erroldatuta egon behar da, behintzat, laguntzaren helburu den ikastaroa hasi baino urtebete lehenago eta ikastaroa amaitu arte bertan erroldatuta egon behar da; hala ere, zenbait kasutan, beharkizun hori betetzea ez da ezinbestekoa izango, kasu horiek informazio-batzorde eskudunak aztertu eta ebatziko baititu.
3. a) Diru-laguntzaren xede den ikastaroan emandako eskola-ordu guztien % 90era, behintzat, bertaratu izana egiaztatzea edo
b) Zentro ofizial batean maila gainditu izana egiaztatzea.
4. Eskatzaileak eta bere familia-unitateak Barrikako Udalean ordaindu beharreko zerga, tasa eta prezio publiko guztiak ordainduta izan behar dituzte.

Aurretik aipatutako betekizun guzti-guztiak egiaztatu beharko dira; horretarako, agiri egokiak aurkeztu beharko dira.

Era berean, diru-laguntza horren onuradun izan ahalko dira Barrikako Udaleko langile finkoak eta jardunean daudenak.

Diru-laguntza hori jasotzetik salbuetsita daude honakoak:

- IRALE edo HAEEn programa zehatzen bidez, ikastaroak egin dituztenak edo beren enpresen edo erakundeen diru-laguntzak jasotzen dituztenak.
- HABEk emandako diru-laguntzak jasotzeko eskubideak ematen dituzten azterketak gainditu dituztenak: 1. maila, 2. maila eta EGA.

BOSGARRENA.- Diru-laguntzak emateko modua.

Diru-laguntzak emateko modua lehiaketa bidezkoa da, hainbanaketa-sistema hain zuzen ere, puntuen modalitatean. Horrela, onartutako eskabide guztiek jasoko dute diru-laguntzaren bat.

Diru-laguntzak banatu ondoren, aurrekontuko kontu-sailean soberakinik geratuko balitz, eta eskatutako zenbatekotik behera eman zaion eskabiderik balego, banatu egingo litzateke soberakin hori eskatzaileen artean, berriro ere puntuak hainbanatuz, harik eta kreditu erabilgarria agortu arte.

Barrikako Udaleko Informazio Batzordeak aztertuko ditu diru-laguntzen eskariak.

SEIGARRENA.- Baloratzeko irizpideak

Oinarri hauetan araututako diru-laguntzak esleitzeko, eskariak ondoko irizpide eta haztapenak erabilita ebaluatuko dira:

| | Irizpidea: | Puntuak Gehienez |
|---|---|------------------|
| 1 | Eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoa: balorazio handiena emango zaio zenbateko txikiena duenari. | 25 |
| 2 | Egin beharreko jardueraren edo ikastaroaren iraupena: balorazio handiena emango zaio iraupen txikiena duenari | 25 |
| 3 | Diru-laguntza eskatu den ikastaroaren antzinatasuna edo maila: balorazio handiena emango zaio antzinatasun edo maila altuena duenari. | 25 |
| 4 | Ikastaroa udal-euskaltegietan jasotzea. | 25 |

ZAZPIGARRENA.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

- Izenpetzailearen NANaren fotokopia.
- Matrikula ordaindu izanaren frogagiria. Barnetegi edo antzeko zentroen kasuan, bereiztu egingo dira kostu akademikoa eta egonaldiaren kostua; eta diruz lagunduko den bakarra kostua akademikoa izango da.
- Honakoak jasoko dituen ikastetxe ofizialaren frogagiria:
 - a) Emandako eskola-orduen % 90era bertaratu izana, edo
 - b) Ikastaroa gainditu izana.
- HABEk ematen dituen diru-laguntzak lortzeko azterketa gainditu ez dela egiaztatzeko agiria.

Aipatutako agiri eta datuez gain, Barrikako Udalak, kasuaren arabera, eskatzaileari agiri osagarriak eskatu ahalko dizkio, aurkeztutako eskaria baloratzeko egokitzat jotzen baditu.

Baldin eta zehaztutako dokumenturen bat Administrazioaren esku badago, diru-laguntza eskatzen duenak eskubidea izango du horiek ez aurkezteko, hala aurreikusten baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3) artikuluko bigarren paragrafoan. Horrelakoetan, interesatuek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, esanez ez direla aldatu dokumentazio hura eman zen uneko ingurumariak, eta berariaz zehaztu

beharko dute zein dokumentu diren horiek, zein datatakoak diren eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren.

ZORTZIGARRENA.- Aurkezteko lekua eta epea.

Eskariak aurkezteko epea egutegiko hogeitau egunekoa izango da, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta.

Entitateen eta, hala badagokio, pertsona interesatuen eskabideak Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira; edo, nahi izanez gero, urriaren 1eko 39/2015 Legeak —Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeak— 16.4 artikuluan aipatzen dituen lekuetako edozeinetan.

BEDERATZIGARRENA.- Ebatzi eta jakinarazteko epea.

Diru-laguntzak emateko prozedura ebatzi eta jakinarazteko gehienezko epea hiru hilekoa izango da eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik. Emandako eta ukatutako diru-laguntzak jakinaraziko dira, bai eta eman ez direnak ere, azken horiek arrazoi hauek direla-eta eman gabe geratu badira: eskarian atzera egitea, eskubideari uko egitea edo gerora sortutako ezintasun materiala.

HAMARGARRENA.- Jakinarazteko bideak.

Ebazpenaren berri emango zaie interesatuei, hala aurreikusten baita Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. Artikuluan.

HAMAIKAGARRENA.- Errekurtso-bideak.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta haren aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal da, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabeteko epearen barruan. Nahi izanez gero, zuzen-zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, betiere Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legeak 8. eta 10. artikuluetan aurreikusitako eskumenen banaketaren arabera; errekurtso hori jartzeko epea 2 hilekoa da jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

HAMABIGARRENA.- Argitara eman bedi deialdiaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, iragarki-oholean eta Udalaren web-orrian..

D. ERRENTA TXIKIAK DITUZTEN BARRIKAKO FAMILIA-UNITATEEI HIRI-IZAERAKO ONDASUN HIGIEZINEN GAINKO ZERGA ETA ZARAMA ETA ESTOLDERIAGATIKO TASAK ORDAINTZEN LAGUNTZEKO OINARRI ARAU-EMAILEAK.

Kultura, kirol eta laguntza jardueretarako diru-laguntzak emateko Udal Ordenantza Udalbatzak onartzeko akordioan ahalmena ematen zitzaion alkate jaunari ordenantza garatzeko; eta alkateak, berriz, 2015eko uztailaren 15eko 97/2015 Dekretuaren bidez, Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetu zion ahalmen hori. Horiek horrela, Udal Ordenantzaren xedatutakoa betetzeko, eta Informazio Batzordeak 2016ko urriaren 18an eta azaroaren 10ean emandako irizpenekin bat, Tokiko Gobernu Batzarrak ondoko akordio hau hartu du:

LEHENENGOA: Onartzen dira “hiri-izaerako ondasun higiezin gainko zerga eta zarama eta estolderiagatiko tasak errenta txikiak dituzten barrikako familia-unitateei ordaintzeko laguntzen oinarri arau-emaileak”. Hona hemen oinarrion testua:

1. artikulua.- Helburua

Oinarri hauen helburua da arautzea nola emango zaizkien zenbait diru-laguntza halako baldintza jakin batzuk betetzen dituzten familia-unitateei. Diru-laguntza horiek lehiaketa bidez emango dira, eta erabiliko dira “hiri-izaerako ondasun higiezin gainko 2016ko zerga (OHZ) eta zarama” eta “estolderiagatiko 2015eko tasak” ordaintzen laguntzeko, betiere ohiko etxebizitzarako bakarrik. Ondoko artikuluetan ezartzen dira bete beharreko baldintzak:

2. artikulua.- Hartzaileak

Ohiko etxebizitzaren titularrak diren pertsona eta familia-unitate barrizkotarrak. Etxebizitzan benetan bizi diren pertsonen multzoa familiaunitatez joko da. Egoera hori biztanleen udal-eroldaren egiaztagiriaren bidez ziurtatuko da.

3. artikulua.- Baldintzak

1. Ordainduta edukitzea kasuan kasuko higiezinaren “hiri-izaerako ondasun higiezin gainko zerga” (OHZ) eta “zarama eta estolderiagatiko tasak”, 2016koak.
2. Higiezin baten erreziboaren gainean egiten bada laguntza-eskaria, higiezin horretan erroldatuta egon behar da 2016ko urtarrilaren 1a baino lehenago, eta higiezin horrek ohiko etxebizitza izan behar du.
3. Ohiko etxebizitzaren titularrak izatea. Titularra hil bada eta higiezinaren titulartasuna oraindik aldatu ez bada, erreziboak ordaindu dituen pertsonak eskatu ahal izango du diru-laguntza, baldin eta gainerako baldintzak betetzen baditu. Diru-laguntza ordainketa-kontu berean sartuko da.
4. Laguntzaren sorburu den higiezinaren katastro-balioak 15.000 eurokoa edo txikiagoa izan behar du.
5. Nahikoa diru-baliabiderik ez izatea. Familia-unitate osoaren urteko diru-sarrerek, 2015ean, ezin izango dute gainditu 22.585,50 euroko zenbatekoa (lanbidearteko gutxieneko soldata, 645,3 euro, bider 2,5, bider 14 hileko). Familia-unitateko kide-kopuruaren arabera haztatuko da gehienezko muga hori:

| Kide-kopurua | Zuzenketa-indizea | Diru-sarreraren gehienezko muga |
|--------------|-------------------|---------------------------------|
| 1 | 1 | 22.585,50 |
| 2 | 0,95 | 23.774 |
| 3 | 0,90 | 25.095 |
| 4 | 0,85 | 26.571 |
| 5 | 0,80 | 28.232 |
| ≥6 | 0,75 | 30.114 |

6. Barrikako Udalarekin eta Ogasunarekin zerga-betebeharrak egunean izatea; Gizarte Segurantzarekikoek ere egunean egon beharko dute.
7. Eskabidea egiten den unean, familia-unitateko kideek edo unitate osoak ezin izango dute beste etxebizitza baten jabe izan, %100ean, (ohiko etxebizitza ez bada); konputu horretatik kanpo geratzen da trasteleku eta ibilgailu bakar baten garajerako lokala, baldin eta laguntzaren sorburua den etxebizitzaren eraikinean helbideratuta badago.

4. artikulua.- Bateragarritasuna

Laguntza hauek ez dira bateragarriak izango helburu bera duten beste laguntza batzuekin (GLLetako mantenimendua). Beraz, GLLetako mantenimendu-kontzeptua jaso duten familia-unitateek ezin izango dituzte laguntza horiek eskatu.

5. artikulua.- Zenbatekoa

2016ko aurrekontu-proiektuan laguntzen deialdi honetarako jasotako gehienezko kreditu erabilgarria 5.000 eurokoa da.

Laguntzok emateko prozesua lehiaketa bidezkoa izango da. Diru-laguntza bakar bat emango da familia-unitate bakoitzeko, eta familia-unitatearen diru-sarrerak kontuan hartuta zehaztuko da zenbatekoa.

| Kide-kopurua | Familia-unitatearen diru-sarrerak, guztira (€) | 2016ko OHZ, zarama eta estolderia tasen gaineko % |
|--------------|--|---|
| 1 | ≤15.000 | 100 |
| | 15.001 - 22.585,5 | 50 |
| 2 | ≤15.789 | 100 |
| | 15.790 – 23.774 | 50 |
| 3 | ≤16.667 | 100 |
| | 16.668 – 25.095 | 50 |
| 4 | ≤17.647 | 100 |
| | 17.648 – 26.571 | 50 |
| 5 | ≤18.750 | 100 |
| | 18.751 – 28.232 | 50 |
| ≥6 | ≤20.000 | 100 |
| | 20.001 – 30.114 | 50 |

Baldintzak betetzen dituzten eskabideen zenbateko osoa 5.000 eurotik gorakoa bada, hainbanatu egingo da zenbatekoa.

Ondoko egoeretako batean egoteak aukera emango du laguntzaren %100 jasotzeko, betiere baldintzak betetzen badira eta diru-sarreraren gehienezko muga gainditzen ez bada. Hona baldintzak:

- 2014 edo 2015ean gertatutako hipoteka-egikaritzapeneko prozesu baten ondorioz, ohiko etxebizitzaren maizter-botatze judiziala izatea.
- Genero-indarkeriaren biktima izatea (honela egiaztatuta: tratu txarren salaketa, kautelazko neurriak edo epai irmoa, urruntze-agindua tartean dela).

- Familia-unitateko kideren batek, mendekotasuna baloratzeko baremoaren arabera, II. gradua edo III. gradua edukitzea.
- Guraso bakarra izatea, bere ardurapean adin txikikoak edukita (guraso banandua, dibortziatua, alarguna, ezkondu gabeko gurasoak).

6. artikulua. Eskabideak

Eskabidea (I. eranskina) behar bezala beteta aurkeztu behar da, eta horrekin batera, beste dokumentazio hau ere bai:

- Familia-unitateko kide guztien NANen fotokopia.
- Familia-unitateko kide guztien datu pertsonalak lagatzeko baimena (I. eranskinaren atzealdea). Adin txikikoen kasuan, bere legezko ordezkariak sinatu beharko du baimena.
- 5. artikuluan jasotako inguruabarrak egiaztatzea.
- Bidezkotzat jotzen den beste edozein dokumentazio osagarri.
- Erantzukizunpeko adierazpena, azaltzen duena interesatuak egunean dituela Barrikako Udalari, Ogasunari eta Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketak (I. eranskinean sartuta).
- Laguntza ordaintzeko erabiliko den libretaren edo kontu korrontearen zenbakia edo kodea (I. eranskinean sartuta).

7. artikulua.- Aurkezteko epea eta lekua.

Eskabideak aurkezteko epea egutegiko 60 egunekoa izango da, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta.

Eskabideak Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztu ahal izango dira; edo, nahi izanez gero, urriaren 1eko 39/2015 Legeak —Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeak— 16.4 artikuluan aipatzen dituen lekuetako edozeinetan.

Postetxearen bidez aurkezten diren eskabideak, egiaztatu baino lehenago, gutun-azal irekian aurkeztu beharko dira, postetxeko funtzionarioak data jarri eta zigilua eman dezan.

8. artikulua- Eskabideen zuzenketa

Eskabidea edo erantsitako dokumentazioa guztiz osatu gabe badago edo zuzentzeko moduko akatsen bat badu, eskatzaileari adieraziko zaio 10 egun baliodun dituela akatsa zuzentzeko, jakinarazpena helarazi eta hurrengo egunetik aurrera, eta adieraziko zaio, halaber, horrela egiten ez badu eskarian atzera egin duela ulertuko dela.

9. artikulua.- Kide anitzeko organo instruktorea

Laguntzak emateko organo instruktorea Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuen Saila izango da.

Organo instruktoreak txostena emango du, eta bertan, batetik, egiaztatuko du baldintzak betetzen direla, eta, bestetik, akordio-proposamena egingo du, Tokiko Gobernu Batzarrari aurkezteko.

10. artikulua- Eskabideak ebaztea

Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako akordio bidez emango dira diru-laguntzak.

Ebazpena emateko gehienezko epea bi hilekoa da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik. Eta epe hori igarota, ebazpen adierazirik ematen ez bada,

diru-laguntzaren eskaria ezetsizat joko da, hala ezartzen baita Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1 a) artikuluan.

Ebazpenaren aurka berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organo berari, hilabeteko epearen barruan, emandako diru-laguntzak argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta.

11. artikulua.- Diru-laguntzen ebazpena jendaurrean

Diru-laguntzen ebazpena Barrikako Udaletxeko iragarki-oholean eta web-orrian emango da argitara

12. artikulua.- Arauteria orokorra

Deialdi honetan ezarritako diru-laguntzek ondoko xedapen hauek izango dute araubide: ebazpena bera, emate-aginduetan ezartzen diren gainerako baldintzak, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea.

13. artikulua.- Itzultzeko prozedura

Dagozkion baldintzak bete gabe eskuratu bada laguntza, itzuli egin beharko dira behar ez bezala jasotako zenbatekoak, itzultzeko prozeduraren bidez.

BIGARRENA: Argitara bedi laguntza hauen 2016ko deialdi publikoaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, bai eta Udaletxeko iragarki-oholean eta web-orrian ere.

Barrikan, 2016ko abenduaren 14an.
ALKATEA,

Izp.: Roberto Muñoz García